

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, LEHENENGO SAILKAPEN TALDEA, ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN, ITZULPENGINTZA/INTERPRETAZIO ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

8.6 oinarri orokorrean, bigarren paragrafoan, zehaztuta dago lehiaketa fasean merezimenduak baloratuko direla eta fase horretan lortutako puntuazioa izango dela deialdiaren oinarri espezifikotik zehaztutako baremoen arabera lortutako puntuen batura.

Horrela, aipatutako hautaketa prozesuko oinarri espezifikotik, laugarren puntuari, jasota dago lehiaketaren fasean aztertu eta baloratuko direla oposizio fasea gainditu duten hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak, eta merezimendu bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkiola oinarri horretan zehaztutako baremo espezifikoaren arabera.

Bestalde, aipatutako hautaketa prozesuko hautagaiek oinarri orokorretako 8.3 oinarrian zehaztutakoari jarraituz egiaztatu dituzten euskarako hizkuntza eskakizunak ere baloratu dira, aipatutako hautaketa prozesuko oinarri espezifikotako seigarren oinarriari jarraikiz.

Hortaz, hautaketa prozesuko epaimahaiak hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak eta euskarako hizkuntza eskakizunak aztertu eta baloratu ondoren, eta epaimahaiak, bilduta, deialdiko oinarri orokorretako zortzigarren eta hamabigarren puntuei eta oinarri espezifikotako seigarren puntuari jarraikiz, erabaki du:

LEHENENGOA. - Argiratzea oposizio fasea gainditu duten hautagaiek legezko epean eta eran alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduen eta euskarako hizkuntza eskakizunen behin-behineko balorazioa.

BIGARRENA. - Hamar (10) egun balioduneko epea ezartzea, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna (4. HE) izateko baldintza "EZ GAI" duten hautagaiek dokumentu bidez alegatu ahal izan dezaten hizkuntza eskakizun hori badutela. Halá egiten ez badute, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

HIRUGARRENA. - Iragarkia argitaratzea UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp); bertan ikusi ahal izango da merezimenduen eta euskarako hizkuntza eskakizunen behin-behineko balorazioa.

LAUGARRENA. - Hamar (10) egun balioduneko epea ezartzea, erabaki hau argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamazioa idatzi bidez egin beharko da, idatzia UPV/EHU horretarako zehaztuta dauden erregistroetan aurkeztuta, edo 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 16.4 artikuluan zehaztutako bideen bidez aurkeztuta. Edózelan ere, kontuan hartu beharko da aipatutako legezko azken xedapenetatik zazpigarrenean zehaztutakoa, hain zuzen ere, erregistro elektronikoei buruzko lege xedapenak bi urteren buruan sartuko direla indarrean.

Leioa, 2021eko ótsailaren 1a.

Epaimahaiko idazkaria

Elena González-Pinto